

TORMENTAS CON GRANIZO. DÍA 28/08/2001

A finales de agosto de 2001 se producen una serie de episodios tormentosos, siendo de intensidad moderada a fuerte, acompañadas de pedrisco las producidas durante el martes día 28 en la zona de Valdegovía de Alava, donde se llegan a producir problemas de corrimiento de tierras en algunas calzadas. Diversas comarcas como el Duranguesado, cuenca del Deba, Oiartzun, Gran Bilbao o Gernika, entre otras, son afectadas también por el granizo y fuertes precipitaciones.

El análisis sinóptico en superficie muestra una configuración poco definida en superficie, con una baja relativa sobre el norte de la Península a mediodía y débiles gradientes de presión (ver figura 6.1.). En el nivel de 500 hPa, a 5800 metros aproximadamente (ver figura 6.3.), se observa una vaguada de aire frío sobre Galicia y un flujo difluente de vientos del suroeste sobre el Cantabrico. La temperatura en este nivel es de unos -12°C . En el nivel de 850 hPa, localizado a unos 1500 metros aproximadamente, se observa la entrada de aire cálido desde África con una temperatura de 20°C (ver figura 6.2.).


Las precipitaciones más intensas se registran en Orduña (5,7 mm/10'), Saratxo (5,7 mm/10'), Muxika (6 mm/10'), Igorre (3,7 mm/10'), Urkizu (3,8 mm/10'), Iurreta (4,6 mm/10'), Urkiola (8,7 mm/10'), Barazar (6,8 mm/10') y Otxandio (6,7 mm/10'). En general, en Gipuzkoa las precipitaciones fueron menos intensas que en el resto del territorio.

TXINGOR EKAITZAK. 2001/08/28

2001eko abuztuaren amaiera aldera intentsitate ertainetik gogorrera bitarteko hainbat ekaitz izan ziren, eta, esate baterako hilaren 28an Arabako Valdegovían txingorra ere egin zuen, eta lubiziek, gainera, arazoak eragin zituzten zenbait bidetan. Beste eskualde batzutan ere ederki eraso zuten txingorrak eta euriak, besteak beste, Durangaldean, Deba arroan, Oiartzunen, Bilbo Handian eta Gernikan.



Analisi sinoptikoak erakusten duenez, azaleko konfigurazioa ez da oso garbia, penintsularen iparraldean depresio erlatibo bat eta presio-gradiente ahulak ageri baitira eguerdi-partean (ikus 6.1 irudia). 500 hPa-ko mailan, 5800 metro ingurura (ikus 6.3 irudia), haize hotzezko aska bat ikus daiteke Galizia gainean eta hego-mendebaldeko haize-fluxu barreiakorra Kantauri gainean. Maila horretan tenperatura $-12\text{ }^{\circ}\text{C}$ ingurukoa da. 850 hPa-ko mailan, berriz, 1500 metro ingurura, Afrikatik $20\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ko tenperaturan datorren aire epela nola sartzen den ikusten da (ikus 6.2 irudia.).

Prezipitazio gogorrenak estazio hauetan erregistratu ziren: Orduñan (5,7 mm/10'), Saratxon (5,7 mm/10'), Muxikan (6 mm/10'), Igorren (3,7 mm/10'), Urkizun (3,8 mm/10'), Iurretan (4,6 mm/10'), Urkiolan (8,7 mm/10'), Barazarren (6,8 mm/10') eta Otxandion (6,7 mm/10'). Oro har, Gipuzkoan prezipitazioak ez ziren lurraldeko gainontzeko lekuetan bezain gogorrak izan.



6.1 irudia. Analisi mapa.

Figura 6.1. Mapa de análisis.



6.2. eta 6.3 irudiak. Geopotenziala eta isotermak 500 mbm-tara.

Figuras 6.2 y 6.3. Geopotencial e isothermas a 500 mb.